

# Gaur eskolan ikasi, bihar lantokian erabili

Lapurdiko zenbait herriko etxetako eta bestelako administraziotako langileak euskara ikasten ari dira. Ikasleak zein irakasleak gustura dira: gaur ikasitakoa bihar lantokian praktikan jartzen dute. Emaiza azkarrek kuraia ematen dute.

ONINTZA IRURETA

ARGIA



Asteroko saioan, Uztaritzen, kafe orduan harrapatu genituen ikasleak. Ezkerretik eskuinera: Dani Ormaechea, Yannick Odeau, Guy Copentipy (irakaslea), Chantal Pujol, Patricia Bétachet eta Amaia Beyrie (AEKn koordinatzaile).

CHANTAL PUJOL Uztaritzeko Herriko Etxeko langilea da, Oportegiko zuzendaria. Haurrak errezibitzen dituzte oporretan eta asteazkenetan. Umea zela bazekien euskara. Gazte zela galdu zuen eta AEKn hasi zen. Orain herriko etxearen bidez euskara hobetu nahian dabil. Mintzatzeko moldatzen da, baina idazteko zailtasunak ditu: “Ikasi dut gutunak egiten, menuak itzultzen... baina idaztea beti da zaila”. Euskaraz alfabetatu gabeko belaunaldia izaki.

Patricia Bétachet, Pujolen gisa, euskaraz mintzo zen haurra zela.

Gero ahantzi zuen eta Lizeoan segizion. Bigarren urtea da Uztaritzeko Herriko Etxearen bidez euskara eskolak hartzen ari dela. Uztaritzeko liburutegian egiten du lan. Euskara maila ona izateko beharra sentitzen zuen, etxean haurrak dituelako eta lanean ere hurrekin ari delako. Galdetu diogu ea gustura dabilen eskolak hartzen: “Biziki untsa, plazer handi batekin etortzen naiz. Zaila idatzizkoa, nire problema handiena”. Bétachetek lau urtez ikasteko aukera du, ez badu lantokiko egoerak bestelakorik eskatzen. Liburute-

gian hiru langile dira eta beste batek ere nahi du euskara ikasi. Beharbada lau urte egin baino lehen emango dio lekukoa Bétachetek lankideari.

Dani Ormaechea Ainhoako Ondare Etxean ari da lanean. Duela bi hilabete hasi zen eskolak hartzen. Ahoz zein idatziz moldatu nahi du hobekia. Nafarroako eta Gipuzkoako jendearekin lan harremanak ditu; besteak beste Sara, Zugarramurdi, Urdazubi eta Donostiako kideekin mintzatzeko da euskaraz. Etxeko euskara dauka eta orain eskolan ikasitakoarekin hobeto moldatzen da elkar ulertzeko: “Orain lehen ikasitakoak beste modu batean eman behar dira, interesgarria da gimnastika hori egitea”.

Yannick Odeau Frantzia erdialdekoa da. Senpereko Herriko Etxean haur eta gazteen hezkuntza zerbitzua kudeatzen du. Orain dela zazpi urte hasi zen euskara ikasten. Kolore askotako euskara egiten du, Lapurdin ikasi baitu, eta baita Lesakan eta Etxarri-Aranatzen ere (Nafarroa) eta Foruan (Bizkaia) eta Lazkaon (Gipuzkoa). Euskara ikasteko egitasmoaren berri izan eta berak galdetu zuen herriko etxean ea has zitekeen eskolak hartzen. Baiezkoa jaso zuen. Orain dela bi hilabete hasi da astero hiru orenez. Haurrentzat egiten du lan Senpereko Herriko Etxean eta mintzatzeko zein idazteko nahi du euskara ikasi. Hiru ikaskideek esandako bera aipatu du: “Zaila da, idazteko”.

Guy Copentipyk, irakasleak, esan digu lau ikasle ez baizik eta zortzi

dituela. Argazkiko egunean erdiek piper egin arren ohikoena astero sei bat egotea da.


### Aurten 81 ikasle

Herriko etxeetako idazkariak dira, opor garaian haurrak errezibitzen dituztenak, kirol hezitzaileak, liburuzainak... Administraziooko langileei galdetu egin zaie ea euskara ikasi nahi duten lanean moldatu ahal izateko. Deigarria izan da Baionako erantzuna: 200 langilek eskatu zuten euskara ikasteko aukera. Ez dira denak batera euskara ikasten hasi, jakina. Aurten 30 ari dira eskolalar hartzen.

Ahaleginak eta bi egin zituen urtetan Euskal Konfederazioak herriko etxeetan langileek euskara ikasteko aukera izan zezaten. Hitzarmenak 2003-2004an hasi ziren. Behin abiada hartuta Euskal Konfederazioak lekukoa pasa zion Euskararen Erakunde Publikoari. Baliabidez Konfederazioa baino dezente hobeto hornituta, egitasmoa azkartu zuen erakundeak. 81 ikasle ari dira orain irakaskuntza berezitan eta hiru-lau urteren bueltan zerbitzua osoki euskaraz eskaintzeko gai izango direla esan digu Amaia Beyriek, AEK-ko xede arloko koordinatzaileak. Gaur egun euskara eskola berezitu horiek guztiak AEK-k ematen ditu.

### Gaur ikasi, bihar erabili

Ikasle guztiak ez dira euskararik gabeak. Proiektuaren asmoa da langile bakoitzak bere lanposturako gaitasun profesionala lortzea. Batzuk zerotik hasi dira eta dena dute ikasteko. Beste batzuek haur garaiko euskara dute, herdoildua, eta orain askatzen ari dira. Beste batzuk berriz euskaraz ederki mintzo dira, baina alfabetatu gabeak dira. Idatzia zaila egiten zaie, lau ikasleek argi adierazi digute. Aldiz, lanean etengabe ari beharra dute gutunak, afixak, egita-



Urdinez margotutako Lapurdiko herri hauetan irakaskuntza berezituak dituzten hamabi talde daude, 81 ikasle guztira, AEK-k kudeatuta.

rauak eta dena delakoak frantsesetik euskarara ekartzen. Beyriek ikasleen artean euskara jakin eta erabiltzeaz lotsa direnak ere badirela esan digu. Nagusiek langileei ez die eskatu euskaraz egiteko, herriko etxeetara edo bestelako administrazio gunetara

**Langileei egunerokoan zein behar dituzten galdetzen zaie eta horietan irakasten zaizkie asteroko hiru orenez. Ikasi eta praktikan jarri, dena bat**

jo duen euskaldun askok ere frantsesetik egin du leihatilan. Hala dio Beyriek: "Traumatismoa da euskararena, euskara haurrentzat, laguntzat eta etxerako dugu askotan. Frantsesa da gauza serioetarako, lanerako alegia. Orain galdegin zaie ea ikasi nahi duten, auzapezak baimena eman die euskara ikasteko, batzuetan eskatu egin die euskara

ikasteko. Orain balorizatu sentitzen dute euren burua". Langilea balorizatu sentitzen da, eta baita leihatilara doan euskalduna ere. Euskara tokiz kanpo zegoelakoan frantsesetik ari ziren leihatilaren bi aldeetan, orain lasaiago mintzo dira euskaraz.

Amaiak, mintzatu garen tartean, bi ideia nagusi azpimarratu ditu. Batetik, egindako lanaren emaitza agerikoa eta momentukoa dela. Langileei egunerokoan zein behar dituzten galdetzen zaie eta horietan irakasten zaizkie asteroko hiru orenez, hau da, hitzorduak ematen, telefonoa hartzen, gutunak idazten edo abisuak ematen. Ikasi eta praktikan jarri, dena bat. Bestetik, Beyriek nabarmendu du batzuk aitzindari izan direla eta orain "kutsatzea" egokitzen dela. Herri bateko eta besteko ikasleak elkar ezagutzen hasi dira, euskaldunek elkar "atzerman" dute. Ikasle kopurua emendatu eta erabilera azkartuko da.

Hori da bederen, irakasleen zein ikasleen esperantza. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!  
artean!  
euskaraz



BFA  
DFB